

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

285

EBAZPENA, 2022ko abenduaren 30ekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, behean adierazitako toki-erakundeei laguntzak esleitzen dizkiena, erakunde horietan zerbitzuan diharduten enplegatuen prestakuntza finantzatu dezaten.

AURREKARIAK

Lehenengoa.— 2022ko ekainaren 14an, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren Ebazpen bat argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Ebazpen horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetako enplegatuen prestakuntza finantzatzera bideratutako laguntzen deialdia egin zen.

Deialdiak bi laguntza mota aurreikusten ditu; alde batetik, euskal administrazio publikoek beren langileentzat onartzen dituzten 2022ko ekitaldirako prestakuntza-plan edo -programak burutzeagatik, eta, bestetik, 2022an Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak antolatutako prestakuntza-ekintzetan parte hartzeagatik.

Deialdiaren zortzigarren oinarriak ezartzen duenez, lehenengo eta behin esleitu behar dira aurkezten diren prestakuntza-plan edo -programengatik eman daitezkeen laguntzak, eta, bigarrenik, IVAPEk antolatutako prestakuntza-ekintzetan parte hartzeagatik eman daitezkeenak.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2022ko abenduaren 21eko Ebazpenaren bitartez, euren enplegatuentzako prestakuntza-plan edo -programak aurkeztu zituzten erakundeei dagozkien laguntzak esleitu dira. Hortaz, bidezkoa da 2022an sortu eta IVAPi prestakuntza-jarduerengatik ordaindutako matrikulen zati bat itzultzeko diren laguntzei buruzko ebazpena ere ematea.

Bigarrena.— Ordaindutako matrikulengatik laguntzak direla-eta, deialdiaren zortzigarren klausulak dio ebazpen bakarra emango dela, urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte ordaindutakoei dagokiena. Beraz, 2022an ordaindutako matrikulei dagozkien laguntzak esleituko dira ebazpen honetan.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.— Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen 1/1997 Legegintza Dekretuaren 51.2 artikularen arabera, Gobernua, sailburuak eta erakunde autonomiadunen lehendakari eta zuzendariak dira arauak onartu eta bakoitzak bere esparruko laguntzak eta dirulaguntzak emateko eskumena duten organoak.

Bigarrena.— IVAPEko zuzendariaren 2022ko ekainaren 1eko Ebazpenaren bidez onartutako deialdiaren zortzigarren oinarriak ezartzen duenez, IVAPi prestakuntza-jarduerengatik ordaindutako matrikulen zati bat finantzatzeko diren laguntzen esleipena erakunde horretako zuzendariaren ebazpen baten bitartez egingo da. Ebazpen horrek diruz lagundutako erakundeen zerrenda bilduko du, eta erakunde bakoitzari egokitu zaion guztizko zenbatekoa ere adieraziko da.

Deialdiaren laugarren klausulak dionez, lehenengo oinarriaren b) letran aurreikusitako laguntzetarako diru-kopurua, gehienez, 40.000 eurokoa izango da.

Horiek horrela, eta aipatutako ebazpenak, 2022ko ekainaren 14an argitaratutakoak, dioena betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Behean aipatzen diren zenbatekoak ordaintzea ondorengo zerrendan ageri diren erakundeei, prestakuntza finantzatzeko erabil ditzaten.

Erakundea	Gehienez ordaindutako matrikulen % 50 (eurotan)
Abadiñoako Udala	302,00
Abanto Zierbenako Udala	2.620,50
Aiako Udala	18,50
Ajangizko Udala	93,00
Alegiako Udala	38,00
Antzuolako Udala	129,00
Arabako Lautadako Kuadrilla	19,50
Areatzako Udala	128,00
Aretxabaletako Udala	668,50
Armiñongo Udaletxea	198,50
Arratzua-Ubarrundiako Udala	122,00
Arrietako Udala	388,00
Arrigorriagako Udala	1.354,50
Barrikako Udala	53,50
Berantevillako Udala	92,50
Berastegiko Udala	19,50
Bergarako Udala	1.041,50
Berrizko Udala	801,00
Debako Udala	568,50
Derioko Udala	908,00
Dimako Udala	19,50
Elantxobeko Udala	134,00
Elgoibarko Udala	389,50
Enkarterri Udal Mankomunitatea	637,00
Errigoitiko Udala	426,50
Eskoriatzako Udala	68,50
Etxebarriko Udala	2.259,50
Foruko Udala	72,00
Fruizko Udala	64,00
Gaategiz Arteagako Udala	64,00
Güeñesko Udala	228,50
Ibarrangeluko Udala	137,00
Idiazabalgo Udala	281,00
Iruña Okako Udala	68,50

Erakundea	Gehienez ordaindutako matrikulen % 50 (eurotan)
Lazkaoko Udala	18,50
Larrabetzuko Udala	647,50
Lea-Artibaiko Amankomunazgoa	19,50
Legazpiko Udala	226,00
Legutioko Udala	528,50
Lekeitioko Udala	282,50
Lemoako Udala	733,50
Lezoko Udala	121,00
Maruri-Jatabeko Udala	270,00
Meñakako Udala	140,50
Munitibar-Arbatzegi Gerrikaizko Udala	50,50
Mutrikuko Udala	92,00
Oiartzungo Udala	696,50
Okondoko Udala	213,50
Ordiziako Udala	563,00
Orioko Udala	600,00
Peñacerrada-Urizaharreko Udala	39,00
San Markos Mankomunitatea	257,50
Sondikako Udala	287,00
Sopelako Udala	808,00
Trapagarango Udala	1.016,00
Urdulizko Udala	185,50
Urduñako Udala	413,00
Urretxuko Udala	64,00
Gaubeako Udala	96,00
Zaldibarko Udala	1.789,00
Zestoako Udala	121,00
Zigoitiko Udala	1.379,00
Ziortza-Bolibar Elizateko Udala	192,00
Zuiako Udala	145,00
Zumaiako Udala	1.309,50
Guztira	27.718,50

Bigarrena.– Zerrendan ageri diren erakundeei esleitutako kopuruak ordaintzeko tramitazioa has dadila agintzea.

ERREKURTSOAK

Ebazpen honen aurka ezin da errekurtsorik jarri administrazio-bidean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikulua arautzen duen moduan.

Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari aurkez dakioke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Errekurtsoa jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, jakinarazi eta hurrengo egu-netik aurrera, aipaturiko 29/1998 Legearen 46. artikulua esan bezala.

Hala ere, aldez aurretik, Erakunde honi errekerimendua egin ahal izango zaio, egintza ezeztatu dezan. Errekeritzeko epea bi hilabetekoa izango da, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Errekerimendua IVAPeko zuzendariari zuzendu beharko zaio, idazki arrazoitu baten bidez. Errekerimendua jaso eta hurrengo hilabetearen erantzunik ematen ez bazaio, ukatutzat joko da (29/1998 Legearen 44. artikulua). Aurretik errekerimendua izan bada, berariazko akordioa jaso edo isilbidez ezeztatutzat jo eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 30a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MAITE BARRUETABEÑA ZENEKORTA.